



Eztitxu Mugika Mariezkurrena
Zaldibiako alkatea

Andre hori,

Zaldibiako alkate andrea, gutun hau idazten dut apirilaren 7an bidali zenidan idazkiari erantzunez, baina baita zure adierazpen publikoei erantzunez ere, zeinetan ziurtatzen baituzu Osasun Sailak ez diela erantzunik eman pandemiaren aurka borrokatzeko egin dituzuen informazio-eskaerei eta tresnei. Horri dagokionez, ezin dut onartu zure udalaren laguntza eta informazio eskakizunak aintzat hartu ez izana leporatzea, egia ez diralako; zure idazkia irakurtzea besterik ez dago:

“ Bileran aipatu zeniguten bezala, ez dago foko argirik eta Lardizabal Eskolaren bidez eta hezkuntzan jarrita dauden protokoloei jarraiki lortu da kasu asko azaleratzea. Badakigu, ordea, kasu asko daudela eskola zein adin-txikikoekin inolako loturarik ez dutenak. Egun hauetan Osakidetzako arakatzaile sareari eta herritarren kolaborazioari esker lan handia egin da, hori ukaezina da eta datuak dira horren ispilu. Indarrean diren neurriei buruzko informazioa, herritarrei emandako ohartarazpenak eta irizpideak ere egunerokoak izan dira Udaletik.”

Koldo Cambra Osasun Publikoaren eta Adikzioen zuzendari ondokoarekin izandako elkarrizketak ere aipatzen dituzu. Ondorioz, ez da egia Udalaren eskakizunei jaramonik egin ez zaienik, zuon eskuetan COVIDaren aurka egiteko tresnarik izan ez duzuenik. Udalak eskatzen duen baheketa masiboa da egin ez den gauza bakarra; eta egin ez bada, irizpide epidemiologikoengatik da. Baheketak irizpide teknikoekin eta egoera jakin batzuetan egiten dira; baheketak pandemiaren aurkako beste tresna bat baino ez dira. Pandemiaren une honetan, denok dakigu zeintzuk diren tresna horiek: gizarte-interazioak saihestea, musukoak erabiltzea, eskuetako higiena, aireztapena, distantzia soziala, burbuila berberak mantentzea beti; neurri horiek dira, txertoekin batera, COVIDaren aurkako tresna egokienak; txertoak jartzea Osasun Sailaren ardura da baina, beste tresna guztiak denok ditugu eskura, Sailak, Udalak eta biztanleriak; neurriok hedatu, beraietaz kontzientziatu eta aplikatu da egin behar dena pandemia gainditzeko

Vitoria-Gasteiz, 2021eko apirilaren 8a

MIREN GOTZONE
SAGARDUI
GOIKOETXEA -

Firmado digitalmente por
MIREN GOTZONE
SAGARDUI GOIKOETXEA -

Fecha: 2021.04.08
11:36:26 +02'00'



Gotzone Sagardui Goikoetxea
Osasun Sailburua / Consejera de Salud

OSASUN SAILA
DEPARTAMENTO DE SALUD